Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

**Bizkaiko Foru Aldundiko Foru Dekretuaren laburpena; Foru Dekretu horren bidez, dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak eta deialdia onartzen dira. Dirulaguntza horiek emango zaizkie, hain zuzen ere, 2026ko ekitaldian euskara ingurune digitalean egon dadin ekoizkinak egiten dituzten Bizkaiko Lurralde Historikoko merkataritza-sozietateei, kooperatiba-sozietateei, irabazi-asmorik gabeko pertsona juridiko pribatuei, enpresaburu indibidualei eta profesionalei.**

Diru-laguntza orokorrei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b) eta 20.8.a) artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak: (https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/____________).

## Lehena. Pertsonak edota entitate onuradunak

Bizkaiko Lurralde Historikoko merkataritza-sozietateak, kooperatiba-sozietateak, irabazi-asmorik gabeko pertsona juridikoak, enpresaburu indibidualak eta profesionalak izan daitezke foru-dekretu honetan araututako dirulaguntzen onuradun, 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 12. artikuluan jasotako egoeretako batean ez badaude, eta baldintza hauek betetzen badituzte:

a) Egoitza soziala Bizkaiko Lurralde Historikoan izatea.

b) Dagokien Erregistroan izena emanda egotea.

c) Era berean, merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legea aplikatu behar zaien pertsona fisiko edo juridikoek egiaztatu beharko dute ordainketa-epeak betetzen dituztela baldin eta dirulaguntzen deialdi honen babesean eta aurkeztutako proiektu guztien ondorioz 30.000 eurotik gorako zenbatekoa eskatzen badute.

## Bigarrena. Xedea

Foru-dekretu honen arabera, dirulaguntza jaso dezakete euskarak ingurune digitalean duen presentzia sustatzen laguntzen duten proiektuek, Euskararen Aholku Batzordearen barruko Ingurune Digitalean Batzorde-atal Bereziak euskara ingurune digitalean bultzatzeko ezarritako gomendioen arabera. Izan ere, Bizkaiko Foru Aldundiak gomendio horietan ezarritakoa hartu baitu arlo horretako gidalerro nagusi legez.

Horretara, bada, foru-dekretu arautzaile honen bidez, diruz lagunduko dira deialdiaren 1. oinarriko 1. puntuan deskribatutako proiektuak.

Dirulaguntzarako eskabidean aurkeztutako proiektuak 2026ko ekitaldiaren barruan garatu beharko dira eta publikoari zabalik edo merkatuan eskuragarri egon behar dute urtea bukatu aurretik.

## Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 8GBW-IP7Y-YHH0-6WXS
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Bizkaiko Foru Aldundiaren Foru Dekretua, dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak eta deialdia onartzen dituena. Dirulaguntza horiek emango zaizkie, hain zuzen ere, 2026ko ekitaldian euskara ingurune digitalean egon dadin ekoizkinak egiten dituzten Bizkaiko Lurralde Historikoko merkataritza-sozietateei, kooperatiba-sozietateei, irabazi-asmorik gabeko pertsona juridiko pribatuei, enpresaburu indibidualei eta profesionalei.

## Laugarrena. Zenbatekoa

Deialdi honetako dirulaguntzak emateko 2026. urtean indarrean dagoen aurrekontu muga berrehun mila (200.000,00) eurokoa da.

## Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

Eskabideak aurkezteko epea 2026ko urtarrilaren 12an hasiko da eta 2026ko otsailaren 9ko 13:30ean amaituko da.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 8GBW-IP7Y-YHH0-6WXS
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

**Extracto del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia por el que se aprueban las bases reguladoras y la convocatoria de subvenciones destinadas a las sociedades mercantiles, sociedades cooperativas, personas jurídicas privadas sin ánimo de lucro, personas empresarias individuales y profesionales del Territorio Histórico de Bizkaia que durante el ejercicio 2026, elaboren productos que fomenten la presencia del euskera en el entorno digital.**

De conformidad con lo previsto en los artículos 17.3.b) y 20.8.a) de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, se publica el extracto de la convocatoria cuyo texto completo puede consultarse en la Base de Datos Nacional de Subvenciones (https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/__________).

## Primero. Personas y/o entidades beneficiarias

Podrán beneficiarse de las subvenciones reguladas por el presente decreto foral las sociedades mercantiles, sociedades cooperativas, personas jurídicas privadas sin ánimo de lucro, personas empresarias individuales y profesionales del Territorio Histórico de Bizkaia que, no estando incursas en las causas del art. 12 de la Norma Foral 5/2005 de 31 de mayo, reúnan los siguientes requisitos:

a) Tener el domicilio social en el Territorio Histórico de Bizkaia.

b) Encontrarse inscritas en el Registro correspondiente.

c) Asimismo, las personas físicas o jurídicas a las que les resulte de aplicación la Ley 3/2004 de 29 de diciembre, por las que se establecen medidas de lucha contra la morosidad en las operaciones comerciales, y que, al amparo de esta convocatoria de subvenciones y por el conjunto de proyectos presentados, soliciten un importe superior a 30.000 euros, deberán acreditar que cumplen con los plazos de pago.

## Segundo. Objeto

Las actividades subvencionables con arreglo al presente decreto foral son los proyectos que coadyuven al fomento de la presencia del euskera en el entorno digital, de conformidad con las recomendaciones dirigidas a la promoción del uso del euskera en el entorno digital que a estos efectos establezca la Comisión Especial del Consejo Asesor del Euskera para Fomentar el Euskera en el Entorno Digital, que de hecho, la Diputación Foral de Bizkaia asume como directrices fundamentales en esta materia.

De esta manera, y específicamente, serán subvencionables los proyectos descritos en el punto 1 de la base 1.ª del decreto foral regulador.

Los proyectos que motiven la solicitud de subvención deberán desarrollarse durante el ejercicio 2026 y estar accesibles al público o disponibles en el mercado antes de finalizar el año.

## Tercero. Bases reguladoras

Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia por el que se aprueban las bases reguladoras y la convocatoria de subvenciones destinadas a las sociedades mercantiles, sociedades cooperativas, personas jurídicas privadas sin ánimo de lucro, personas empresarias individuales y profesionales del

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 8GBW-IP7Y-YHH0-6WXS
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Territorio Histórico de Bizkaia que durante el ejercicio 2026, elaboren productos que fomenten la presencia del euskera en el entorno digital.

## Cuarto. Cuantía

El límite presupuestario vigente en el año 2026 para la concesión de las subvenciones de la presente convocatoria es de doscientos mil (200.000,00) euros.

## Quinto. Plazo de presentación de solicitudes

El plazo de presentación de solicitudes será desde el 12 de enero de 2026 hasta el 9 de febrero de 2026 a las 13:30.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 8GBW-IP7Y-YHH0-6WXS
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Sin./Fdo.: LEIXURI ARRIZABALAGA ARRUZA - 2025-11-27
EUSKARA, KULTURA ETA KIROL SAILA-REN FORU DIPUTATUA
DIPUTADO/A FORAL DE DEPARTAMENTO DE EUSKERA, CULTURA Y DEPORTE